



Barrundia Udaleko Alkate Lehendakariaren erabakia, 2020 otsailaren 04 eguneko, Barrundiako udalerrian erroldaturik dauden Elkarteen eta/edo persona fisikoen edo udalerrian bertan jarduerak eta zerbitzuak ematen dituztenen kultura, kirol eta gizarte ekimenak eta natura sustatzekoak 2020 urteko diru-laguntza hartu zuen erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 498151

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, Barrundia Udaleko Alkate-Lehendakariaren erabakia, 2020ko otsailaren 04 eguneko hartu zuen erabakiaren laburpena argitaratzen da. Erabakiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak

.- Barrundiako udalerrian dauden irabazteko asmorik gabeko elkarteak, behar bezala erregistratuak, ekainaren 22ko 7/2007 Legean, Euskadiko elkarteenean, oinarrituz.

.- Irabazteko xederik gabeko kirol elkarte eta klubak, baldin eta, egoitza Barrundiako udalerrian eduki ez arren, bertan badihardute eta haietako bazkide edo parte hartzaileen bat herrikoa bada. Halakoetan, ekainaren 22ko 7/2007 Legean, Euskadiko elkarteenean, xedatutakoaren arabera egiaztatuko da izen ematea.

.- Udalerrian erroldaturiko persona fisikoak, baldin eta zuzenez dagokien dirulaguntza emateko jarduerak egiten ari badira.

.- Barrundian erroldatutako persona fisikoen taldeak, baldin eta, nortasun juridikoa izan ez arren, diruz lagun daitezkeen proiektu edo jarduerak gauzatzen badituzte.

Bigarrena. Xedea

2020ko udal aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza ematea, Barrundiako udalerrian erroldaturik dauden Elkarteen eta/edo persona fisikoen edo udalerrian bertan jarduerak eta zerbitzuak ematen dituztenen kultura, kirol eta gizarte ekimenak eta natura sustatzekoak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2020ko otsailaren 04 egunean Barrundia Udaleko Alkate-Lehendakariaren erabakia bidez.



Laugarrena. Zenbatekoa

Diru-laguntza honen kopurua 5.000,00 euro izan da.

Bosgarrena. Diru-laguntza justifikatzeko epea

2020ko abenduaren 15.